



LITERAKTUM

Hitzen hiria

3.600 PARTE-HARTZAILE BAINO GEHIAGOREKIN AMAITU DA LITERAKTUM 2019 JAIALDIA.

Literaktum, Donostiako literatura-jaialdia, azaroaren 11tik 24ra egin da, hiriko zenbait gunetan egin ere, eta ekitaldietara jende asko erakarrita itxi du aurtengo edizioa, hots, segida eman dio azken urteotako gorakako bideari, 3.600 lagunek baino gehiagok hartu baitute parte proposamenetan. Jaialdiak urratsak eginez jarraitzen du Donostiako urteko literatura-jai handi eta letren inguruko jardunaldien artean erreferentziako hitzordu bihurtzeko helburuaren atzetik.

Aurtengo Literaktumek literaturaren eta feminismoaren arteko loturak izan ditu programaren ardatz nagusi, eta gonbidaturiko autore gehienak emakumeak izan dira. Cristina Morales (Espainiako Narratiba Sarila jaso du berriki), Karmele Jaio, Elvira Sastre, Eider Rodriguez, María Sánchez, Laura Freixas, Mariasun Landa, Christina Roseninge, Paula Bonet, Espido Freire, Lucía Baskaran, Marta Sanz, Arantxa Urretabizkaia (azken Anton Abbadia sariduna) edo Kattalin Miner izan dira, besteak beste, solasaldietan, non mugimendu feministari eta literaturarekin dituen loturei

buruzko auzi asko jorratu baitira.

Topaketak Donostia Kulturako kultur etxeen eta liburutegien sarean gertatu dira, bai eta hiriko beste ekipamenduetan eta zenbait liburu-dendatan ere, eta interes handia piztu dute. Aurtengo edizioan, azpimarratzekoa da ikus-entzuleek bete egin dituztela aretoak behin baino gehiagotan, eta emakumeak eta gazteak zirela asko eta asko. Horren adierazgarri, aipa dezagun María Sánchez eta Elvira Sánchez idazle gazteen arteko solasaldiak izan zuen harrera ederra, Okendo Kultur Etxean; Christina Roseningek eta Paula Bonetek arte-diziplina batzuen eta literaturaren arteko harremani buruz izan zuten solasaldian erabat bete zela Klub aretoa; edo ia 500 lagun izan zirela Cristina Morales idazlearen eta Paul B. Preciado filosofoaren arteko bi elkarrizketetan.

Nabarmenezkoa, halaber, jaialdiaren hasiera-ekitaldia, non Bernardo Atxaga izan baitzen protagonista. Asteasuko idazleak lehen aldiz hitz egin zuen irakurleen aurrean bere azken eleberriaz, *Etxeak eta hilobiak*; hain zuzen ere, Espainiako Letren Sari Nazionala eman zitzaion egunean.

Ramon Saizarbitoria autore donostiarrak eta *Egunero hasten delako* eleberriaren 50. urteurrenak ere leku nabarmena izan dute edizio honetan. Hala, Iratxe Retolazak, Itxaro Bordak eta Lourdes Oñederrak lan hori aztertu zuten DK Irratiaren *Bestalde* programaren zuzeneko emanaldi batean, hain zuzen ere Maite Larburuk eta Harkaitz Canok jaialdian parte hartu aurretik, Ion Olanorekin batera elkarrizketa poetiko-musikala eginez.

Ikus-entzuleen artean arrasto sakona utzi zuen beste solasaldi batek ere: Adam Zagajewski poloniar poetak –2017ko Premio Princesa de Asturias de las Letras– eta Ramón Andrés idazle eta saiogileak San Telmon izan zutenak. Zagajewskiren obra izan zen abiapuntua poesiak gaur egun duen lekuaz eta europar proiektuaren etorkizunaz gogoeta egiteko.

Ez zen hori izan poesia gaitzat hartu zuen saio bakarra. Angel Errok eta Iñigo Astizek poesian edo prosan pentsatzearen antzak eta aldeak jorratu zituzten UPV-EHUK antolaturiko Pentsatu! Jardunaldietan, zeinak aurten ere Literaktumen programan sartu

baitira. Unibertsitatearen eta Jaialdiaren arteko elkarlanaren beste ale bat izan ziren pentsamendua eta feminismoa gaitzat hartuta egin ziren mikro-eztabaidak ere, Kutxa Kultur gunean. Literaturaren aurtengo edizioaren ardatz nagusia aberastu zuten.

Izan ere, Donostia Kulturak antolatutako jaialdiak elkarlanen sare indartsuko gune sendoenetako bat izaten jarraitzen du; besteak beste, Kutxa Kultur eta UPV-EHUz gainera, Gipuzkoako Aldundiko Kultura Departamendua, Euskadiko Filmategia eta Gipuzkoako Liburuzainen Elkarteak ere sartzen dira sare horretan, bai eta Euskal Herriko eta Espainiako zenbait argitaletxe ere. Eta aurten, baita Etxepare Institutua, Poloniako Kultura Institutua eta Feministaldia ere.

Bestalde, jaialdian hiru erakusketa izan dira. Aiete Kultur Etxean, *Jane Austen* erakusketa, Chawtongo Jane Austen Museoko eta Maite Gurrutxaga ilustratzailearen irudiekin, eta Rebeca Dautremern-en *Princess*. Eta Ernest Lluch Kultur Etxean, berriz, *Lur: kultura herriarentzat* erakusketa, 60ko hamarraldiaren azkenetan eta 70ekoaren hasieran euskal kulturaren puntarri izan zen argitaletxeari buruz. Hiru erakusketak ikusgai daude oraindik urtearen azkeneraino.

Literaktumek literatura-afari arrakastatsua izan zuen (oraingoan, Charles Dickens eskainia), bai eta Literaktum Txikia ere, haurrentzako programazio bete-betea, non antzerkia, ipuin-kontalariak, musika eta lantegiak sartu baitira, eta edizioz edizio haziz baitoa asmoz eta eraginez.

Laburbilduz, literaturaren jai handi bat, Donostia “hitzen hiri” bihurtzen duena ia bi astez, goiburuak dioten bezala, eta berriro bisita daitekeena <https://irratia.donostiakultura.eus/es/> URLan eskura dauden podcast-en bitartez.

Informazio gehiago:

www.literaktum.eus